

# Nahiago ez



ARITZ GALARRAGA

**H**asieran, kaleratze-lan ikaragarriak egin nituen. Luzaroan ateratzeko gosez egon banintz bezala, nire irtenaldiez lepo egiten nuela zirudien. Ez nuen digestiorako astirik ere hartzen. Goiz eta arratsalde han aritzen nintzen, kale eta kale, eguzki-argitan nahiz hodei-argitan. Isil-isilik, adoregabe, mekanikoki. Halaxe nengoen, bada. Atzora arte. Atzo, ohiko tenorean, azken egunetan usadio bilakatu denez, paseora joatea galdegin baitzidaten; nik, nire txokotik mugitu gabe, aparteko ahots lasai-irmoz, zera erantzun nuenean: aukeran nahiago ez.

Baina Bartleby izkribatzailearen aldean, nire erresistentzia pasibo honek badu paper gainean jar daitekeen motibaziorik. Ez da hainbeste kutsatzeari beldurra –tira, pixka batean bai, bestela ez nintzateke joango kaletik eslalomean–; ez da hainbeste berriz jendearekin elkartu beharraren nagia –tira, pixka batean bai, nahiz urruntze sozialak asko errazten duen suediarrena egitea–; ez da hainbeste konfinamendu aurreko erritmora itzultzeko zailtasuna –batez ere konfinamendu aurreko erritmorik ez dudalako sekula eduki–. Da, kontxo, etxeko bizimodu bare, lasai, patxadatsua osotoro laketgarri zaidala. Entrenatuta nengoen, egia da, bizitza guztia neraman honetarako prestatzen. Eta orain nire liburuez inguratuta nagoela, orain gustuko filmak nahieran ikus ditzakedala, orain gintonic normal bat –luzoker eta txorradarik gabe– lasai ederrean –sofan luze etzanda– edan dezakedala, orain zertara atera behar naiz kalera? Giza tsunamiak aurretik eraman nazan? Arrazoizko argudio bakarra da hankak luzatzea. Baina pasilloko joan-etorriekin aski dut. Dei nazakeuz ozpindu, noski. Ez oso ozen, hori bai, irakurtzen egongo naiz eta –edo pelikula bat ikusten, edo gintonic normal bat hartzen lasai ederrean–. Eta gaur berriz paseora joatea galdegiten didatenean, berriz erantzungo diet Bartleby estimatuarena: aukeran nahiago ez. ●

ADUR LARREA  
www.adurlarrea.com



ADUR

## “EDOZEIN GARAITAN EGIN DEZAKEGUN LANA ZERGATIK EGIN BEHAR ZEN PANDEMIA BETE-BETEAN?”

### GONZALO RIFFO, DONOSTIAKO METROKO LANGILEA

“Oso litekeena da hamabost egun barru esatea kaleratuta nagoela argitara emateagatik metroaren obretan zer gertatzen ari den. Badira segurtasun aldetik gauza oso larriak. Mila voltoko kable bat ohiko zinta batekin bilduta egotea oso larria da, lurrian eta urez inguratuta. Lankide bat lurrera bota zuen argindar korranteak, eta txiripaz ez zitzaion ondorio larririk gertatu. Istripu asko gertatu dira, oso larriak. Makinak oso gaizki daude. Balaztak likidorik gabe egoten dira gehienetan...”. Funtsezkoak ez besteko jarduera ekonomiko guztiak eten zirenean lan egitera joan behar izan zuela ere salatu du. **BERRIA (2020/05/05)**

